

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## ‘Dora Salazar. Inspiración. Espiración. Expiación’ erakusketak erakustoki berri bat inauguratuko du Nafarroako Museoan

*Altsasuko artistak giza gorputzari eta kritika feministari buruzko bere lana erakusgai jarriko du, ostiral honetan kaperan*

Ostirala, 2018.eko urriak 26

‘Dora Salazar. Inspiración. Espiración. Expiación’ erakusketak ostiral honetan, urriak 26, gaur egungo arterako erakustoki berri bat inauguratuko du, Nafarroako Museoak gaituta, Todo el Arte es Contemporáneo proiektuaren barruan. Kaperaren erakusketa hau hartzeko aukeratutako lekua izango da eta bertan artista altsasuarraren hamabost lan ikusi ahal izango dira giza gorputzaren eta kritika feministaren gaian murgilduta.

Era horretan, Todo el Arte es Contemporáneo proiektua abiatu da, alegia, Nafarroako Museoa berritzeko

azken hogeita hamar urteotan izandako proiektu nagusia. Bertan, hainbat aldaketa hartuko dira barne, instalazioetan zein bere erakusketa iraunkorrean. Horietako bat, hain zuzen ere, kaperaren egokitzeari dagokion aldaketa izan da, bertan, museoko funtsetan lanak dituzten Nafarroako gaur egungo artistek erakustoki gisa erabili ahal izateko.

Gune honek iraupen luzeko erakusketak hartuko ditu barne. Lehenengo honetan, Dora Salazarren erakusketak martxoaren 24ra arte iraungo du. Hala ere, ondorengo edizioetan, erakusketak aldaketarik gabe mantenduko dira maiatzetik martxora arte.

### Gorputzaren adierazkortasuna

Dora Salazar (Altsasu, 1963) Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren fakultatean ikasitako artista plastikoa da. 1985ean bere lehenengo erakusketak eskaini zituenetik, etengabe agertu da bilduma pribatuetan eta publikoetan. Collage eta birziklapenaren bidez, giza gorputzaren bere interpretazioa marrazkietan, eskulturetan eta instalazioetan irudikatu nahi



Artistaren artelanetariko bat.

du. “Gorputza gauza ororen neurria da –aitortu du-, koreografo bat bezala ikuskizun bat proiektatzerakoan”. Gorputzaren bidez, “genero ikuspegi baten nortasuna bilatzen du, artista batek gizarte honetan duen zeregina zalantzan jarritz” aipatu du.

Kapera erakustokizat hartzea, non bere gaur egungo lanetako batzuk XVI eta XVII. mendetako erretaulekin batera agertzen diren, artistarentzat beste erronka bat da. “Oso leku solemnea da, bai ikus-eremuari dagokionez eta bai denboran zehar eutsi dion energiari dagokionez, beraz gunea erabat egokitu behar dela iruditzen zait. Lekua hain hunkigarria denean, uste dut aukerarik hoberena berarekin bat egitea dela” argudiatu du Salazarrek, nork erakusketaren komisarioa izateaz gain, laster kaleratuko den erakusketari buruzko argitalpen bat osatu duen.

Haren ustez, “erakusketa honek ez dauka galeria batekin zerikusirik, hemen lanak erakusgai jartzea lehen abangoardietako aretoetara itzultzearekin lotuta dago, lanez josita eta objektu-altzariekin apainduta”.

Bere lanak, zenbait kasutan, zintzilik agertzen dira eta bestetan, aldarean, edo erretauletan lehenasunezko lekuak okupatzen. Horiek guztiek “giro bat sortu nahi dute, bizipen estetiko, sentsual eta intelektualeko giro bat, aurrekoa eta eremu berria fusionatuz, hor betidanik egon direla uste ahal izateko”.

Salazarrek bere erakusketaren bisita gidatua antolatuko du urriaren 28an, 12:30ean, eta sarrera doakoa izango da erakustokia bete arte.

### **Todo el Arte es Contemporáneo (Arte oro Garaikidea da)**


Urtebete lanean eman ondoren, Nafarroako Museoak Todo el Arte es Contemporáneo proiektuaren lehenengo emaitzak erakusgai jarri ditu, hots; berritzeko eta XXI. mendera egokitzeko ekimen bat. Horretarako, instalazioak hobetzeko hainbat lan burutuko dituzte. Horrela, esate batera, fatxada animatuko da eta hiritarrei gerturatuko zaie, diseinu garaikideko ate batekin eta harriz landutako letrak nabarmenduz. Horrez gain, erakusketen nobedadeak iragarri ahal izango dira.

Aldaketak eraikinaren barrualdean ere nabarmenak izango dira, harreran zein aretoetan. Horri dagokionez, 3 eta 4. solairuak izango dira aldaketa handienak jasoko dituztenak, erakargarriago, freskoago eta eguneratuago bilakatuko dituen diseinu berri batekin.

Aldaketa estetiko hauek Nafarroako Museoko erakusketa iraunkorrak azken hamarkadetan izandako aldaketa handiena hartuko dute barne. Todo el Arte es Contemporáneo proiektuak publikoari artea aurkezteko era berri bat eskaini nahi die, obren erakusketa kronologikoa alde batera utzita, gaietan eta kontzeptuetan murgildutako aurkezpen batera gerturatuzko. Horrela, areto berberean estilo desberdineko baina lanetan antzeko gaiak lantzen dituzten artistak batera agertuko dira erakusgai. Elkarbizitzaren espiritu hori bera museoko beste aretoetara zabalduko da ere, erromanikotik XIX. mendera arte.

Proiektuaren aurrerapenak ezagutu ahal izango dira [Culturainavarra.es](http://Culturainavarra.es). web gunean sortutako microsite-aren bidez.

Berritutako erakusketa iraunkorra hurrengo urte hasieran aurkeztuko da.



Dora Salazar bere estudioan.